IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

# UDALARENAK DIREN BIDE ETA BASO PISTEN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

## ARRAZOIEN AZALPENA

Ordenantza honen helburua da Udalarenak diren bide eta baso pisten erabilera berezia arautzea.

Jabetza publikoa eta erabilera komuna duten baso pistak eta landa-bideak egoera onean mantentzeak esfortzu handia eskatzen du, bai administrazioaren bai erabiltzaile partikularren aldetik.

Erabilera intentsiboak, ezegokiak edo gehiegizkoak zoladura kaltetzen du berehala, eta ibilgailu arruntek ezin erabiltzeko moduan geratzen da. Egurra ateratzeak pisten eta, ondoren, bideen erabilera estentsiboa eskatzen du, errepide orokorrera iritsi arte; eta ondorioz, kalte handiak eragiten dira pista eta bide publikoetan. Kalte hauek gainera, areagotu egiten dira oinarrizko arauak ez betetzeagatik, hala nola gehiegizko karga, ibilgailu ezegokiak, eta abar. Egindako inbertsioek nahiz gerora egitekoek errentagarritasuna izan dezaten (eta erabiltzaile publikoak nahi du errentagarritasun hori) nahitaezkoa da erabilera berezi hau arautzea bide publikoen eta pisten egoera ona mantendu ahal izateko eta haien bitartez udalerriko edozein gunetara sarbidea izateko.

# ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL USO ESPECIAL DE CAMINOS Y PISTAS FORESTALES DE TITULARIDAD MUNICIPAL

## EXPOSICION DE MOTIVOS

Mediante la presente Ordenanza se pretende regular el uso especial de caminos y pistas forestales de titularidad municipal.

El mantener un bien de propiedad pública y uso común como el de las pistas forestales y caminos rurales en buenas condiciones exige un gran esfuerzo, tanto por parte de la administración como por parte de los usuarios particulares en general.

El uso intensivo e inapropiado o exagerado estropea enseguida el pavimento, evitando que pueda ser transitado por vehículos normales. Las labores de extracción de madera, sobre todo, hacen necesario un uso intensivo de las pistas, y después de los caminos, hasta llegar a la carretera general, produciendo grandes daños en dichas pistas y caminos. Además, estos daños suelen agravarse por el incumplimiento o la inobservancia de las normas de uso básicas: Demasiada carga, vehículos inapropiados, etc. Para que las inversiones realizadas así como las futuras tengan la debida rentabilidad, rentabilidad deseada por otro lado por el usuario público general, es imprescindible regular este uso especial, para poder así garantizar la conservación de las pistas y el buen estado de los caminos de titularidad pública, y posibilitar el acceso a través de ellos a diferentes puntos del municipio.

Ordenantza hau ondorengo legeek emandako eskuduntzen ahalez eman da: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 artikulua, 1955eko ekainaren 17ko Dekretu bidez onetsitako Korporazio Lokalen Zerbitzu Erregelamendua eta Toki Erakundeen Ondasunen araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua. Azken horrek jabari publikoko ondasunen erabilpen berezia arautzeko ahalmena aitortzen die Toki Entitateei.

En virtud de la potestad reglamentaria concedida por el artículo 4.1 de la ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y en virtud de lo establecido en el Decreto de 17 de junio de 1955 por el que se aprueba el Reglamento de Servicios y en el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes, se aprueba la presente Ordenanza, en la cual se prevé la facultad de las Entidades Locales de intervenir la actividad de sus administrados en los casos de utilización especial de los bienes de dominio público.

*1. artikulua. Helburua*

Ordenantza honen helburua udal titulartasuneko baso-pisten eta landa-bideen erabilera berezia arautzea da.

*Artículo 1. Objeto*

Es objeto de la presente Ordenanza regular el uso especial de pistas forestales y caminos rurales de titularidad municipal.

*2. artikulua. Arau Orokorrak*

Landa-bideek eta baso-pistek duten izaera eta ezaugarri bereziak kontuan hartuta, ibilgailuekin erabili ahal izateko hurrengo arau orokorrak ezartzen dira:

1. Debekatua dago ibilgailu hauek erabiltzea: Beldar-ibilgailuak, gurpiletan kateak edo antzekoak dituztenak, arrastekoak zoruaren gainetik edota errodadura bandakoak, 20 Tm-tik gorakoak eta hiru ardatz baino gehiagoko kamioiak.
2. Landa eremuan kamioien erabilera orokorrerako hurrengo mugak ezartzen dira: Gehienezko abiadura 30 km/ordukoa eta gehienezko zama 20 Tm-koa.
3. Herri bideak ez hondatzeko, ezingo da egurra atera klimatologia baldintzek bideen egoera kaltetu dezaketenean.

*Artículo 2. Normas Generales*

En razón a las características de configuración y naturaleza de caminos rurales y pistas forestales, para su utilización con vehículos automóviles se establecen las siguientes normas generales:

1. Está prohibido el paso de los siguientes vehículos: Vehículo oruga, vehículos con cadenas o similares, los de arrastre sobre pavimento o de banda de rodadura, los que superen las 20 Tm y camiones de más de tres ejes.
2. Se establecen las siguientes limitaciones para el uso general de camiones: Velocidad máxima 30 km/hora y carga máxima de 20 Tm.
3. Para no dañar los caminos públicos, no podrá realizarse la saca de madera cuando las condiciones climatológicas puedan deteriorar el estado de los caminos.

*3. artikulua. Erabilera*

Hala ere, Udalak baimena eman ahal izango du 20 eta 26 TM arteko zama duten ibilgailuekin landa-bideak eta baso-pistak erabiltzeko.

*Artículo 3. Usos especiales*

No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, el Ayuntamiento podrá otorgar licencias para usos especiales de caminos rurales y pistas forestales, con vehículos de peso entre 20 y 26 Tm de carga.

*4. artikulua. Nahitaezko baimena*

Ibarrako bide publikoen eta baso-pisten erabilera berezirako beharrezkoa izango da aurretik udal baimena eskuratzea, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Ondasunen Erregelamenduko 77. artikuluak aurreikusitakoaren arabera. Derrigorrezkoa izango da egurzaleak bere ibilgailuan udal baimenaren kopia bat eramatea.

*Artículo 4. Preceptividad de licencia*

El uso especial de las pistas y caminos públicos de Ibarra está sujeto a la condición de obtener previamente licencia municipal, en virtud de lo establecido en el artículo 77 del Reglamento de Bienes aprobado mediante Real Decreto 1372/1986 de 13 de junio. Será obligatorio que en el vehículo utilizado para la saca de madera se disponga de una copia de la licencia municipal.

5. artikulua. Lizentzia -eskaera

Dagokion baimena edo lizentzia alkateari zuzendutako idatziaren bitartez eskatuko da, bertan ibilbide nagusia, erabileraren zergatia eta zenbatekoa eta beharrezkoak diren argibide guztiak zehaztu beharko dira. (I. Eranskina).

*Artículo 5. Solicitud de licencia*

Se solicitará la licencia mediante escrito dirigido al Alcalde, especificando claramente el recorrido principal, el objeto de la utilización, cuantía y envergadura de la operación, las medidas y todos los datos que se consideren de necesaria información. (Anexo I).

*6. artikulua. Egurra ateratzea*

Baimen-eskaeraren arrazoia egurra ateratzea denean, baimen eskaerari Gipuzkoako Foru Aldundiko Basozaintza Zerbitzuak emandako baimen eta neurketa orria erantsiko zaio, atera nahi den egur kantitatearen gutxi gorabeherako kalkuluarekin.

*Artículo 6. Extracción de madera*

Cuando el motivo de la solicitud de uso sea la de realizar saca de madera, se acompañará la autorización y medición efectuada por el Servicio de Montes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, incluyendo un cálculo estimado de la madera a extraer.

*7. artikulua. Eskaeraren izapideak*

5. artikuluan aipatutako baimen eskaera eginda (I. Eranskina) eta udal teknikariak egindako txostena kontuan hartuta, alkateak eskaera egin zeneko egunetik

*Artículo 7. Tramitación de la solicitud*

Presentado el modelo de la solicitud de licencia citado en el artículo 5 (Anexo I), y visto el informe técnico municipal, la Alcaldía habrá de resolver sobre la misma

hilabete bateko epean erantzuna eman beharko du.

*8. artikulua. Ebazpena*

Baimena ematen duen ebazpenean bidearen erabilera berezirako baldintza orokorrak eta espezifikoak adieraziko dira. Baimena hirugarrenen eskubideen kalterik gabe emango da eta baimena jaso izanak ez du esan nahi beste lege xedapen batzuk aplikatuz beharrezkoak dituen bestelako baimenak behar ez direnik.

*9. artikulua. Fidantza*

Lizentziaren eskatzaileak landa-bideak edo baso-pistak erabili aurretik berme fidantza bat utziko du derrigorrez jarduera bitartean Udalaren ondasunetan sor litezkeen kalteez erantzungo duena.

*10. artikulua. Fidantzaren zenbatekoa*

Oinarrizko kalkulu gisa 0,75 euro/$m^3$-ko kopuru unitarioa finkatzen da, erabilera publikoko bidearen edo pistaren ibilbideko kilometro bakoitzeko,

Gutxieneko fidantza, edozein kasutan 1.000 eurokoa izango da.

Fidantza kalkulatzeko formula eta gutxieneko kopurua urtero eguneratuko da ordenantza fiskalen bitartez.

*11. artikulua. Fidantza jartzea*

Jarduera hasi aurretik fidantza Udaleko banku kontuetan jarriko da edo legeak ezartzen duen moduan eta baldintzak betetzen dituen banku-abala aurkeztuko da Udaletxean.

en el plazo de un mes desde la presentación de la solicitud.

*Artículo 8. Resolución*

La resolución por la que se otorga la licencia determinará las condiciones generales y particulares que habrán de cumplirse en el uso del bien. Dicha licencia se entenderá otorgada sin perjuicio de derechos de terceros y a salvo de la obtención de otras licencias preceptivas en cada caso.

*Artículo 9. Fianza*

El titular de la licencia, deberá depositar una fianza con carácter preceptivo y previo al uso de los caminos rurales o pistas forestales. La misma responderá de los daños que se pudiesen ocasionar en los bienes municipales durante ele ejercicio de la actividad.

*Artículo 10. Cuantía de la fianza*

A modo de cálculo base, se establece una cantidad unitaria de 0,75 euros/$m^3$ y por cada kilómetro de longitud del recorrido en camino, o pista de uso público.

La fianza mínima, en cualquier caso, será de 1.000 euros.

La mencionada cuantía y la fórmula de cálculo se actualizarán anualmente en las Ordenanzas Fiscales Municipales.

*Artículo 11. Depósito de la fianza*

Antes de comenzar la actividad, la fianza se depositará en las cuentas bancarias de titularidad municipal o mediante aval bancario prestado con sujeción a las formas y requisitos legales vigentes y se deberá presentar en el Ayuntamiento.

*12. artikulua. Prezio publikoa ordaintzea*

Landa-bide eta baso-pisten erabilera berezia egiteko beharrezkoa izango da tasa edo prezio publikoa ordaintzea.

Ordenantza fiskalak izango dira Ordenantza honen osagarri. Bertan ezarri eta berrituko dira urtero fidantza kalkulatzeko gutxieneko portzentaia eta kopuru unitarioa.

*Articulo 12. Pago de precio público*

La concesión de licencia queda sujeta al pago del Precio Público por uso especial de pista o camino rural.

En las Ordenanzas Fiscales se establecerá y renovará anualmente la cantidad unitaria y el porcentaje mínimo de cálculo de la cuantía de la fianza.

*13. artikulua. Udal ordenantzan jasotako tasari dagozkion salbuespen eta hobarien erregimena*

Nekazari eta abeltzain profesionalek prezio publiko horren %75a ez dute ordaindu beharko ondorengo kasu hauetan:

- Bideen erabilera berezia, egurra ateratzeko denean.
- Lur egokitzapenak egiteko denean, baldin eta 2.000 m3 lur baino gehiago mugitzen ez bada.

Nekazari eta abeltzain profesionaltzat hartuko da beren irabazien %50 nekazaritza eta abeltzaintza jardueretatik lortzen duenak.

Gaixo dauden pinuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz derrigorrez atera behar direnean, tasa ordaintzetik salbuetsita geratuko dira egur ustiaketa hauek.

*Artículo 13. Régimen de excepciones y bonificaciones correspondientes a la tasa recogida en la ordenanza municipal*

A los agricultores y ganaderos profesionales se les aplicará una bonificación del 75% en el pago de dicho precio público en los siguientes casos:

- Cuando el motivo de la utilización especial de los caminos sea el de extracción de madera.
- Para realizar acondicionamientos de terreno siempre que el transporte de tierras no supere los 2.000 $m^3$.

Se considera agricultor y ganadero profesionales al titular de explotación que perciba de actividades agropecuarias como mínimo el 50% de sus ingresos.

Si la extracción de madera viene motivad por enfermedad de los árboles y así lo ordena la Diputación Foral de Gipuzkoa, los titulares de estas parcelas quedarán exentos de pagar el precio público.

*14. artikulua. Fidantzaren itzulketa eskatzea.*

Landa-bideen eta baso-pisten erabilera berezia eragin duen jarduera amaitzen denean, ordaindutako fidantzaren itzulketa eskatzeko alkateari idatzi bat bidali beharko zaio. Bertan, lanak burutu direla

*Artículo 14. Solicitud de devolución de fianza*

Finalizada la actividad que hubiera dado lugar al uso de caminos rurales o pistas forestales municipales, se pondrá en conocimiento del Ayuntamiento y se instará al mismo la devolución de la

eta, hala bada, sortutako kalteak adierazi behar dira.

fianza, especificando en su caso, los daños que se hubieren causado.

*15. artikulua. Fidantzaren itzulketa eta kalteen konponketa*

*Artículo 15. Tramitación de la devolución de fianza y reparación de los daños*

15.1 Aurreko artikuluan aipatutako idatzia aurkeztu ondoren eta udal teknikariaren txostena ikusi ondoren, alkateak gehienez hilabeteko epean erabakiko du fidantza itzultzea, hala badagokio, edo lizentziaren jabeari jakinaraziko zaio zer konponketa burutu behar duen ondasunak hasierako egoera berean uzteko. Azken kasu honetan, interesdunari entzuteko aukera emango zaio.

15.1 Presentado el escrito citado en el artículo anterior, y visto el informe técnico municipal, la Alcaldía resolverá en el plazo de un mes accediendo a la devolución de la fianza o requiriendo al titular de la licencia para que proceda a la reparación de los daños ocasionados en los bienes, reponiéndolos al estado anterior, previa audiencia del interesado en este último caso.

15.2 Konponketa egiteko eman den epean beharrezko konponketak burutu ez badira, udalak, fidantza erabiliz bere kabuz konponduko ditu udal ondasunetan eragindako kalteak.

15.2 Si en el plazo concedido no se procediera a dar cumplimiento a lo requerido por el Ayuntamiento, éste procederá a ejecutar la fianza, destinándola a la reparación de los daños causados en los bienes.

15.3 Ondasunak jatorrizko egoera berean utzi behar izateak ez du esan nahi ezar daitezkeen isunak alde batera utziko direnik.

15.3 La restitución de los bienes a su estado originario se exigirá sin perjuicio de las sanciones correspondientes.

16. artikulua. Exekuzio subsidiarioa

*Artículo 16. Ejecución subsidiaria*

Baldin eta utzitako fidantza, zuzenean edota zeharka sortutako kalteen konponketa gastuak estaltzeko nahikoa ez bada, Udalak exekuzio subsidiarioaren jardunbidearen bidez egingo du, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoari jarraiki.

En el supuesto de que la fianza no fuera suficiente para cubrir la totalidad de los gastos de reparación, el Ayuntamiento ejercerá la ejecución subsidiaria en los términos previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, reguladora del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

17. artikulua. Arau-hausteak

*Artículo 17. Infracciones*

Ordenantza honen kontrako ekintzak eta ez egiteak arau-hauste administratiboak izango dira eta indarrean dagoen legediari jarraiki udalak zehazten duen kasu, modu eta neurrian zigortu egingo ditu eta honako

Las acciones y omisiones contrarias a esta Ordenanza tendrán el carácter de infracciones administrativas y será sancionadas en los casos, forma y medida que el Ayuntamiento determine

ondorioak sortuko dituzte:

a) Erantzuleei zehapenak ezartzea, eta horretarako, dagokion zehapen-espedientea izapidetu beharko da.

b) Erantzuleek sortutako kalteengatiko kalte-ordaina ordaintzeko beharra.

c) Arauz-kontrako jarduerak edo ez-egiteak sortutako kalteei aurre egiteko asmoz, Udalak beharrezko neurriak abiaraziko ditu.

Arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke:

1. Arau-hauste oso larriak:

a) Ordenantza honetan jasotako bideak dagokion baimenik gabe erabiltzea.

b) Bidea erabiltzen hastea dagokion fidantza ezarri gabe eta tasa ordaindu gabe.

c) Bidearen edozein motako obra edo instalazioen, edo bidea osatzen duten egiturazko elementuen suntsiketa, eraldaketa edo kaltetzea.

d) Bideen ohiko joan-etorriak egitea oztopatzen duten jarduerak gauzatu edo oztopoak ipintzea.

e) Zirkulatzeko onartutako pisua edo zama baino gehiagorekin ibiliz bidea erabiltzea.

f) 3 arau-hauste larri gauzatzea.

2. Arau-hauste larriak:

en concordancia con la legislación vigente y acarrearán:

a) Sanciones a los responsables, con la consiguiente apertura de expediente sancionador.

b) Pago de indemnizaciones por parte de los responsables por los daños causados.

c) El Ayuntamiento tomará las medidas legales necesarias para hacer frente a los daños causados por las infracciones u omisiones.

Las infracciones se clasificarán como muy graves, graves o leves:

1. Infracciones muy graves:

a) El uso de los caminos mencionados en esta Ordenanza sin la correspondiente autorización.

b) El uso del camino sin depositar la fianza correspondiente y sin abonar la tasa correspondiente.

c) La destrucción, modificación o daño causado en cualquier obra o instalación o en los elementos estructurales que conforman el camino rural.

d) Desarrollo de actividades o colocación de obstáculos que dificulten los desplazamientos habituales por los caminos rurales.

e) Circulación por los caminos rurales con una carga mayor a la permitida.

f) Cometer 3 infracciones graves.

2. Infracciones graves:

a) Emandako baimenetan ezarritako aginduetako baten bat ez betetzea, betiere, arau-hauste hori oso larritzat edo arintzat tipifikatua ez badago.

a) No cumplir alguno de los preceptos recogidos en las licencias, siempre y cuando esa infracción no esté tipificada como muy grave o leve.

b) Bidea erabiltzen duten beste erabiltzaileei kalteak gutxitzeko eta haien eskubidea errespetatzeko beharrezko neurriak ez hartzea.

b) No adoptar las medidas adecuadas para minimizar los daños y respetar los derechos de los demás usuarios del camino rural.

c) Bideen bazterretan edo inguruetan hondakinak botatzea, isurtzea eta baimenik gabe uztea (arau-hauste hau oso larritzat joko da ingurumenean sortu duen kaltea larria izan denean edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri denean).

c) Vertido, abandono o acumulación de residuos en los bordes o alrededores de los caminos (se considerará como infracción muy grave cuando el daño medioambiental es grave o cuando la salud de las personas esté en grave peligro).

d) Baimendutako abiadura errespetatu gabe motordun ibilgailuekin bideetan zehar ibiltzea.

d) La circulación de vehículos de motor sin respetar la velocidad máxima permitida.

d) 3 arau-hauste arin gauzatzea.

e) Cometer 3 infracciones leves.

3. Arau-hauste arinak:

3. Infracciones leves:

a) Bideak azkar hondatzea eragiten duten jarduera desegokiak eta arduragabeak gauzatzea.

a) Realización de actividades poco adecuadas e irresponsables que deterioren antes de lo debido los caminos.

b) Arau-hauste oso larria edo larria ez den bestelako ekintza edo omisio, araudi honetan edo aplikagarria den edozeinetan ezarritakoa urratzen denean.

b) Cualquier acción u omisiones que no esté tipificada como infracción grave o muy grave, cuando incumpla lo dispuesto en la presente Ordenanza o en cualquier otra disposición.

*18. artikulua. Zigortzeko prozedura*

*Artículo 18. Procedimiento sancionador*

Udalak, ordenantzaren aginduak ez betetzeagatik zigortzeko prozedurari hasiera emango dio, ofizioz edo partikularrek egindako salaketaren

El Ayuntamiento para sancionar las infracciones cometidas contra esta ordenanza podrá dar comienzo al procedimiento sancionador de oficio o por

ondorioz.

Errepidearen eta bertako osagaien aurka burututako egintzak delitu edo falta izan daitezkeenean, eskumena duen Aginte Judizialari dagokion txostena igorriko zaio eta honek ebazpena ematen ez duen bitartean ez da salaketa prozedurarekin jarraituko.

*19. artikulua. Isunak*

17. artikuluan aipatzen dituen arau-hausteak eragindako kalteak, ondorengo isun hauekin zigortuko dira.

- Arau-hauste oso larriak 1.501 eta 3.000 euro arteko isunarekin zigortuko dira eta hala dagokionean, lortutako baimen berezia galduz.
- Arau-hauste larriaren kasuan isuna 751 eta 1.500 euro artekoa izango da.
- Arau-hauste arinek 750 euro arteko isuna jasoko dute.

Ezarriko den zehapena erabakitzeko orduan ondoko irizpideak hartuko dira bereziki kontuan:

- Nahita egin den edo behin baino gehiagotan egin den.
- Eragindako kalteen izaera.
- Urtebeteko epean antzeko arau-haustea berriro egitea, arau-hauste hori ebazpen irmoaren bidez arau-haustetzat hartu denean.

denuncia de un particular.

En el caso que las acciones ejercidas contra el camino o sus elementos constituyan delitos o faltas tipificadas en las leyes penales, en cuyo caso la Administración pasará el tanto de culpa al orden jurisdiccional competente y se abstendrá de seguir el procedimiento sancionador mientras la Autoridad Judicial no dicte sentencia firme.

*Artículo 19. Sanciones*

Las sanciones correspondientes a los daños producidos por las infracciones señaladas en el artículo 17 serán las siguientes:

- Las infracciones muy graves serán sancionadas con una multa de entre 1.501 y 3.000 euros, y con la pérdida de licencia de uso especial, cuando así corresponda.
- Las infracciones graves se sancionarán con una multa de entre 751 y 1.500 euros.
- Las infracciones leves se sancionarán con una multa de hasta 750 euros.

Se tendrán en cuenta los criterios siguientes para determinar la sanción:

- Si la infracción ha sido intencionada o reiterada.
- La naturaleza de los daños causados.
- Cometer una infracción similar en el plazo de un año, siempre y cuando se haya considerado como infracción por una resolución en firme.

Aurreikusitako isunez aparte, arau-hausteak Udalari errepidean egindako kalteen eta bideetan egindako matxurengatik erabiltzaileei sortutako istripu edo bestelako eraginen zenbatekoaren kalte ordaina emango dio.

Además de las multas señaladas, el infractor deberá pagar al Ayuntamiento la indemnización correspondiente a los accidentes u otros daños ocasionados a los usuarios del camino.

*20. artikulua. Interpretazioa*

*Artículo 20. Interpretación*

Udalak ahalmena du ordenantza hau interpretatzerakoan sor litekeen edozein arazo konpontzeko.

Cualquier duda que pudiera surgir respecto a la interpretación de la presente ordenanza será resuelta por el Ayuntamiento.

AZKEN XEDAPENA

DISPOSICION FINAL

Ordenantza hau indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezartzen dituen tramiteak betetzen direnean.

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y cumplidos los trámites establecidos en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de régimen Local.

**I. ERANSKINA /** ***ANEXO I***

**LANDA-BIDEEN ETA BASO PISTEN ERABILERA**

Kodea

IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

## *USO DE CAMINOS RURALES Y PISTAS FORESTALES*

ESKAERA ORRIA/ *SOLICITUD*

**IZEN-ABIZENAK**/ *Nombre y Apellidos*: ______________________________________
**HELBIDEA**/ *Dirección*: _____________________________________________________
**HERRIA**/ *Municipio*: _______________________________________________________
**POSTA KODEA**/ *Código postal*: _____________________________________________
**TELEFONOA**: ________________________________________________________________
**N.A.N.**/*D.N.I.*: __________________________________________________________

**AZALTZEN DUT**/ *Expongo*

**Burutu beharreko lanak**/ *Trabajos a realizar*:
___________________________________________________________________________

**Kokalekua**/ *Emplazamiento*: _________________________________________________

**Lanen zenbatekoa eta neurriak**/ *Cuantía de la operación:* ___________ $m^3$ (estereo,…)

**Ibilbidea (lursailaren kokapen planoa)**/ *Itinerario (plano de situación de la parcela)*:
___________________________________________________________________________

**Garraioaren ezaugarriak**/ *Características medio de transporte*:

- ✓ **Tonak**/ *Tonelaje*: __________ kg
- ✓ **Ardatz kopurua**/ *Nº ejes*: ___________

**Basozaintzako baimena (egurra ateratzeko bada)**/ *Autorización del Servicio de Montes de la DFG (para extraer madera)*:
______________________________________

**ESKATZEN DUT**/ *Solicito*

**Landa-bideak eta baso pistak erabiltzeko baimena**./ *Licencia para uso de caminos rurales y pistas forestales municipales*.

Ibarran, 20…ko ………………ren …(e)an

**Eskatzailea** / *El/la solicitante*